

**EHUn DOKTOREAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO
KONTRATAZIO DEIALDIA; ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA
UNIBERTSITATE MINISTERIOAREN JAKINTZA SORTZEKO
2022 DEIALDIARI LOTURIKO PID2022-139821OB-I00
PROIEKTUAN (FPI 2023-BIS)**

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako behin-betiko
zerrenda**

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, martxoaren 25ean errektoreordetzaren web atarian ebaluazio-fasera pasatzeko onartu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen.

Alegazioak egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin-betiko zerrenda bere web-atarian argitaratzea. Deialdi honetan jasotako eskaera bakarra baztertua izan denez, deialdia hutsik geratzen da.

Helegiteak

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarritz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. Artikuluak).

Leioan, 2026ko apirilaren 15ean.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza